ITSUKI IRRATI DIGITALA MARTXAN IPINTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Gotzon Bareño Duñabeitiak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, fede emoten dau.

BATU DIRA

ALDE BATETIK: NADIA NEMEH SHOMALY and. (NAN: 72.311.504-X) Bermeoko Udaleko alkate-udalburua.

BESTE ALDETIK: JOSU URQUIDI ELORTEGUI jn. (NAN: 78.910.595-X), KOSTARRI KULTUR ELKARTEko presidentea.

PARTE HARTZAILEAK

A NADIA NEMEH SHOMALY and., Bermeoko Udalaren ordez eta izenean, 2026ko uztailaren 1eko 4934/2026 dekretuan erabagitakoari jarraiki, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeko 21.1.b) eta r) artikuluek emondako ahalmenaren arabera, eta

beste aldetik,

JOSU URQUIDI ELORTEGUI jn., KOSTARRI KULTUR ELKARTEAren ordez eta izenean, elkarteko presidente legez, horrek karguak emoten deutsozan ahalmenen arabera.

ADIERAZTEN DABE

Bermeoko Udalak, herritarrak uneoro informatuta izateko eta Lege aginduz eskatzen dan gardentasuna bermatzeko betebeharra dauka eta, horretarako, publizitate aktiboa egin behar dau.

Publizitate aktibo horren hedadura eragingarrirako, besteak beste, herri irrati baten beharrizana ikusten da. Baina era digitalean guztiz murgilduta dagoen gizartean, irrati hori digitala izango da, kanal ezbardinetan izango dauena hedadura.

Bestalde, Bermeoko Udalaren Legealdi Planeko ardatz estrategikoetako bat, Bermeo bizia da eta, ardatz honen barruan, herria erakusleiho artistiko eta kulturala bihurtzearen, herriko ondare kulturala eta identitatea balioan jartzearen, Bermeoko jaiei hauspoa ematearen eta Herritarrak euskaraz bizi

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

daitezen lortzeko, euskara bereizgarri eta erakargarri egitearen helburu estrategikoak dauz, eta Koskarri Kultur Elkarteak aurkeztutako proiektua helburu estrategiko hauekaz lerrokatuta dago.

Ganera, herria erakusleiho artistiko eta kulturala bihurtzearen helburu estrategikoan aurreikusten dan ekintzetako bat, herri irratia berrabiaraztearen ekintza aurreikusten da, urrekoa, euskalduna eta bertoko informazinoari lehentasuna emoten deutsona, eta hori da aitatutako elkartearen egitasmo zehatza.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, Udalek, aldian-aldian eta eguneraturik argitaratuko dabe euren jardueraren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua dan informazioa, jarduera publikoaren funtzionamendu eta kontrolarekin zerikusia daukana.

Eta gorago adierazi dan moduan, kanal ezbardinak erabilita, hedadura digitala izango dauen herri irratiaren bidez, informazinoa zabaltzeko bide eraginkorra eta eragingarria izan leike, herritarrek uneoro jakin daiezan nora jo informazino guztia eskuratzeko.

Hori horrela, Bermeoko udalerrian irrati bat baino gehiago egon baziran be, gaur egun ez dago irratirik, eta barriro berreskuratu gura da, formatu digitalean, aitatutako udal betebeharrak betetzen dirala bermatzeko.

Horretaz gain, herrian irrati bat eukitea, herriko eta eskualdeko barriek, gertakizunek, musikeak eta bitxikeriek lekua euki daien, guztiz interesgarritzat joten da herritarrei jagokenez eta, herritarren interes hori kontuan hartuta, ondo informatuta egon daitezen, irratia formatu digitalean martxan ipintzea nahitaezkotzat joten da.

Ganera, Bermeoko Udalak, herri irratirako lokala dauka, une honetan erabilerarik ez daukana.

Hori horrela, ezinbestekotzat joten da udalaren eta Kostarri Kultur Elkartearen lankidetzea, udalak, beraren esku daukazan bideak erabilita, herri irratirako lokalaren erabilera lagata, eta dirulaguntza izenduna bideratuta, behar dauen bultzakadea emoteko, eta Kostarri Kultur Elkarteak irrati digitala martxan ipiniteko, kutsu herrikoigaz, herritarrak uneoro ondo informatuta egon daitezen eta herriko nortasuna sustatu daien, besteak beste.

Ondorioz, Bermeoko Udalak herri irratirako daukan erabilera bako lokalaren bidez eta Bermeoko Udaleko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako dirulaguntzari esker eta Kostarri Kultur Elkartea alkarlanean,

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea

JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073

Datea: 01/04/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

herri irrati digitala abiarazteko alderdi bien lankidetzea arautzea da hitzarmen honen helburua.

ERABAGI DABE

Lehenengoa: Bermeoko Udalak herri irratirako daukan erabilera bako lokalaren bidez eta Bermeoko Udaleko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunari esker, herri irrati digitala abiaraztea, Kostarri Kultur Elkarteagaz alkarlanean.

Bigarrena: Kostarri Kultur Elkarteak baldintza hauek bete beharko dauz:

1.- Baldintza orokorrak:

a) Herri irrati digitala martxan ipintzea, aurkeztutako proiektuagaz bat.
b) Jarduera hori irabazteko asmo barik garatzea, hau da, enpresa irabaz helburu barik.
c) Hitzarmena sinatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta daukiezala kreditatu beharko dabe. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
d) Egunean egotea betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan.
e) Jardueran ezingo da ezelako sexuaren ziozko bereizkeria eragin, eta hizkuntza ez sexista erabiliko da uneoro. Zentzu berean, martxoaren 16ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen dauen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitorpena aurkeztu beharko da.
f) Bermeoko Udalak lagatako lokala herri irrati digitala bideratzeko bakarrik erabiliko da, eta ezingo da lokal horretan bestelako erabilerarik egin, ezta beste inori erabiltzen itzi. Erabileratik sortzen diran gastuak ordaindu behar dauz alkarteak, hala nola,, ohiko mantenu eta garbiketa gastuak.. Udalaren kargura izango dira Ura, argindarra
g) Udalak egoki eristen dauzen ikuskapenak egin ahal izateko eragozpen edo trabarik ez ipintea.
h) Udaletik jasoko dauen dirulaguntza behar dan moduan zuritzea.
i) Herri irrati digitalaren jardueratik sortu leikezan erantzukizunak erantzuteko eta edukiera babesteko aseguru egokia(k) eukitzea. Poliz(ar)en kopia, hitzarmena sinatu eta gehienezko 10 laneguneko epean aurkeztu beharko da.
j) Berehala jakinarazo beharko dauz ondasunetan sortutako kalte, arazo edo irregulartasunak, baita beraren erru edo borondatearen kanpokoak badira be.
k) Alkarteari egotzi leikiozan kalteak badagoz, alkarteak berak konpondu beharko dauz edo udalak konponduko dauz, ordezko exekuzino bidez, alkartearen pentzura, emondako epean egingo ez baleu.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

l) Hitzarmenaren epea amaitu eta segiduan, herri irrati digitala martxan ipintzeko erabiliko dan lokala administrazinoaren esku, libre eta hutsik itzi.

m) Herri irratia digitalari buruz alkarteak argitaratzen dauen publizidadean, Bermeoko Udalaren logoagaz agertzea.

n) Publizitate-objektuak doan eman nahi badira, hauek, soilik izango dira finantzagarriak proiektuaren beharrezko gastutzat hartzen badira eta egiaztagarriak badira. Horretarako, aldez aurretik adostasuna eskatu beharko zaio udalak izendatutako diru-laguntzaren jarraipenaren arduradunari, eta beti udalaren logoa agertu beharko da..

2.- Baldintza espezifikoak:

a) Kostarri Kultur Elkarteak, ostera, abiarazi gura dan irrati digitalaren izakera herrikoia izan daien, eta herriaren onuran, herritarrak ondo informatuta egon daitezen, Bermeoko barriei emongo deutse lehentasuna. Era berean, Bermeon normalean erabilten dan hizkuntza euskerea dan ezkero, eta Bermeoko euskaldun kopurua kontuan eukita, hizkuntza erispide honeek bete beharko dauz:

-Irratia oro har eta salbuespenak salbuespen euskeraz emitiduko da. Hau da, irratiaren ohiko eta hizkuntza nagusia euskerea izango da. Euskerea ez dan beste hizkuntza bat erabilten danean, arrazoituta egon beharko dau euskeraz ez emititzeko arrazoia, eta gaztelania ez da izango zubi hizkuntza.

-Ohiko irrati saioak euskeraz emitiduko dira bere osotasunean. Irratian parte hartzera gonbidatuko diran pertsonak be euskaldunak izateko ahalegina egingo da, eta gonbidatuak euskerea ez jakitea izango da salbuespen bakarra euskeraz ez egiteko.

-Saio aske edo irekietan, saioan parte hartuko dauen norbanako, talde, alkarte edo dana dalakoaren esku geratuko da zein hizkuntza erabili, baina norbanakoa euskalduna bada, euskeraz bideratuko dau saioa, eta alkarte, talde edo ganerakoen kasuan, alkartean, taldean… euskeraz berba egiteko gai dan kiderik badago, horreek kideek bideratuko dabe saioa.

-Saio aske edo irekietako programazioa antolatzeko eta hizkuntzaren edo hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko, programazioa udalera bideratuko da behin betiko egitaraua finkatu aurretik. Gitxieneko astebeteko aurrerapenagaz bialdu beharko da egitaraua.

-Euskal musikeak presentzia izango dau irratian; musika-aro edo -gai konkretuakaz loturarik ez daukien musika saioetan eta musika modu askean

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

jarten danean, hau da emisio konkretu bat ez dagoanean, euskal musikearen gutxieneko presentzia 4 abestirik 1 euskeraz izatea izango da. Bestalde, euskal musika tradizionalak lekua izango badau be, egungo euskal musikea eta Bermeoko taldeen musikea bultzatzeko aparteko ahalegina egingo da.

-Beste irrati batzuekaz emisino loturarik egitekotan, euskerazko hedabideakaz egingo da.

-Publizidadea (iragarki komertzialak) euskeraz egingo da, eta emitiduko diran iragarki, ohar eta ganerakoetan be euskerea erabiliko da. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltekotan salbuespenez izango da eta arrazoituta egon beharko dau.

-Erabiliko dan euskerea kalidadezkoa izango da eta ohikotasunez bermeotarrez egingo da berba.

-Bermeoko hizkeraz berba egiteaz ganera, Bermeoko hizkerea prestigiatzeko eta balioan jarteko ahalegina egingo da, eta euskal identidadeak eta euskal kulturak orokorrean, eta Bermeoko nortasunak eta izaerak bereziki berebiziko pisua izango dabe programazinoan.

-Euskerearen normalizazinoagaz zerikusia daukien ekimen guztiak zabaldu eta sustatuko dira.

-Udalagazko hartu-emonak euskeraz izango dira, eta prentsaurreko eta abarretako informazinoa euskeraz emongo dau udalak, bai ahoz, eta bai idatziz. Informazino hori euskeraz emitiduko da.

b) Kostarri Kultur Elkarteak, martxan ipiniko dan herri irrati digitala herritarren interesekoa izan daien, eta interes orokorraren mesedean, aurreko atalean aitatutakoaz ganera. Udalak deitzen dauzan prentsaurrekoetara etortzeko ahaleginak egingo dauz eta azaltzen diran barriak zabaldu beharko dauz entzuleek herriko gaien barri eduki daien. Etortzerik ez dekon kasuetan, Bermeoko Udalari eskatuko dio informazioa berriok zabaldu ahal izateko.

c) Udal erabaki garrantzitsuak hartzen direnean (hala nola aurrekontuak, administrazioekin lankidetza hitzarmenak etb), eta horien inguruko saioak antolatzen direnean, aurretiaz udalari emongo jako informazioa. Bermeoko Udalak hilero bariku bat okingo dau egoki ikusten dituen gaiei buruz berba

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea

JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073

Datea: 01/04/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

egiteko eta beharrezkoak diren argibideak, erantzunak, zehaztapenak eta abar eman eta helarazteko, edo eta telefonoz erantzuteko.

d) Era berean, Udalak argitaratzen dauzan Bandoen barri emon beharko dau, astean hirutan, gitxienez, audientzia kota altuenetakoa dagoen orduetan zehar, herritarrak jakitun egon daitezan eta jasotako dirulaguntza herritarrengan itzuliera euki daien. Horretarako, Bermeoko Udalak, argitaratuko dauzan Bandoak bideratuko deutsoz Kostarri Kultur Elkarteari eta elkarteak., bandoak lantzeko eta informazioa zabaltzeko, udalaren prentsa bulegoagaz jarriko da harremanean beharrezko azalpenak jasotzeko.

e) Bestalde, Bandoak megafonia bidez iragartzen diranean, Kostarri Kultur Elkarteak bandoaren grabaketa prestatuko dau eta, urteko lehenengoko 10 grabaketak doakoak izango dira. Hortik gorakoak, 6 eurotan ordainduko dira, kontutan eukita herritarren onuran egiten dala.

f) Aitatutako guztiak aparte, Bermeoko Udalak, 50 publizitate iragarki labur (cuña) sartzeko aukera izango dau, dohainik, urteko, interes orokorreko gaietan herritarrak jakitun egon daitezen. Hortik gorakoak, erantsita agertzen diran prezioen arabera ordainduko dira.

g) Publizitateak eta komunikazinoak eragin handia izaten dabe errealitateaz daukagun pertzepzinoan. Mezu jakin batzuk behin eta berriz errepikatzeak hainbat balio, portaera-eredu eta bizitza-estiloren onarpen akritikoa eragiten dabe neurri handi batean, eta, hortaz, komunikazinoak eta publizitateak, beste eragile sozializatzaile batzuekaz batera, errealitatea eraikitzen dabela esan leike. Publizitateak eta komunikazinoak oraindik ere elementu sexisten markak daukeez, emakumeentzako eta gizonentzako rol baztertzaileak gizarteratzen eta natural bihurtzen dabezanak.
Gauzak horrela, Itsuki Irrati Digitala, Emakunderi atxikita dagoen BEGIRA aholku-batzordearen “publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoan” oinarritu egingo da; Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen dauen 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritakoari erantzunez eta 360/2013 Dekretuaren bidez arautua, komunikabide publikoan emoten diran edukietarako kode etikoak aplikatuz, eta jarduna emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipiora egokituz. Hori horrela:

-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO LEGEEKIKO BEGIRUNEA. Itsuki

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

herri irrati digitalak, begirunea gordeko deutsee egun, Euskal autonomi erkidegoan indarrean dauzen legeei, eskubide eta printzipioei, baita be Bermeoko Udaleko emakume eta gizonen berdintasuneko III planari. Era honetan, ezingo da «pertsonek, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gitxiago edo gehiago daukeela edo sexu-objektu soilak dirala adierazten daben publizitate-iragarki oro egin, emon edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horreri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dauen oro ere».

-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA. Herri irrati digitalak, gizartearekiko dauen erantzukizuna, hartuko dau, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko daben ereduak proposatuz. Estereotipoekaz eta zenbait balio, jakintza eta ezaguera esklusiboki emakumeei edo gizonei egoztearekin amaitzeko konpromisoagaz. ikuspegi inklusiboen alde eginez emakume eta gizonen errealitate estereotipatuak azaltzen dabezan ikuspuntu partzialak erabili ordez, emakumeen eta gizonen berdintasuna garatzeko aukerak mugatuko ez dauzen diskurtso bat sortuz.

-DISKRIMINAZIO EZAREKIKO KONPROMISOA. Sexu-diskriminazinoko jarrerak, jokabideak eta egoerak normaltzen edo sustatzen dabezen irudi eta diskurtsoak erabiltzeari uko egiten deutso. Alboratuz emakumeak gizonen mende jartzen dabezan rolak, bai eta emakumeen egoera pertsonal nahiz soziala gutxiago dan iradokizunak be. Bereziki, gitxiengo talde bateko kide diran emakumeen kasuan, diskriminazino bikoitza edo hirukoitza ere pairatzen dabelako.

-EMAKUMEAK IKUSGAI EGITEKO KONPROMISOA. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko dau, biak ala biak agertuz informazio-iturri gisa, baita irudiak eta hizkuntza lantzean ere. Gizartearen esparru guztietan hainbat zeregin betetzen ager daitezan emakumeak, eta haien ekarpenak aitortu eta balioetsi daitezan.

-DIBERTSITATEA IKUSGAI EGITEKO KONPROMISOA mezuak lantzean, emakumeak eta gizonak estereotipo eta genero-rolik gabe azalduko dira; hainbat lan mota eta lanbide betetzen irudikatuz, esparru publikoan nola pribatuan, gizarteko errealitatearekin bat etorriz. Agerian jarri beharko da zein anitzak diran emakumeak eta gizonak adinari, azalaren koloreari, herritartasunari, genero-identitateari, sexu-joerari, gorputz motari, joera estetikoei, gaitasunei eta abarrei jagokenez. Bermeoko herritarrak pertsona anitzak dira, eta guztien informazino-premiak eta interes ugariak ase beharko dira. Ikuspuntu androzentrikoak baztertuz hau da, gai-zerrendatan

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

tradizioz interesgarritzat jo ez diran kalitateko edukiak sartuz, hain zuzen, zaintzari, ongizateari, osasunari eta abarrei buruzkoak.

-INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO KONPROMISOA Emakumeen aurkako indarkeria tratatzean, etikaz eta zehatz informatuko da, sentikortasuna eta gizartearen gaitzespena sustatuz, indarkeria guztiz desagerrarazteko. Indarkerian sentsazionalismoa errotik kentzeko konpromisoarekin bat eginez, ez arriskaraztea informazinoen zehaztasuna aurreiritzi eta estereotipo sexistak birsortuz. Ez soilik indarkeria muturrekoenaren agerpenetan (tratu txarrak, erailketa), baita ohiko eta normalduenetan be (jazarpenak, tratu txar sotilak, mikromatxismoak, etab.), betiere, begirune berezia erakutsiz zuzeneko biktimei eta haien ingurukoei.

-EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUAN PRESTATZEKO ETA SENTIKORTZEKO KONPROMISOA Prestakuntzako eta sentikortzeko jardueretan parte hartzea, Kostarri Kultur Elkarteko kideak, gai izan daitezen jokabide eta erabilera sexistak identifikatzeko eta berdintasunezko ereduak proposatzeko, kideak berdintasunaren aldeko eredu izan daiezan.

Eta aitatutako guztiak, herritarren informazinoa bermatuta egon daien, eta interes orokorra bermatze aldera, egin leikezan bestelako difusino ekimenen kalte barik.

Hirugarrena: Bermeoko Udalak bete beharreko baldintzak

Bermeoko Udalak, Administrazino Publikoen Ondarea arautzen dauan 33/2003 Legearen 93 eta 137.4.c) artikuluagaz bat, herri irratirako Atalde Kalean daukan lokalaren erabilera baimenduko dau, horretarako esleitzen dan zuzenezko baimenaren bidez:

Kokapena: ATALDE KALEA, 8 2. Solairua (aintxineko bedel etxea)
Katastro erreferentzia: N9858834W

Aitatutako lokala, baimendutako erabilera eta jardueretarako askatasun osoz eta kanpoko ezelako oztopo barik erabili ahal izatea erraztuko dau lankidetza hitzarmen honek irauten dauen bitartean.

Proiektua modu egokian burutzen dala eta hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen dirala bermatzeko, Bermeoko Udalak behar besteko ikuskapenak egin ahal izango dauz eta, beharrezkoa dan kasuetan, agindu zehatzak emon ahal izango dauz, hitzarmenaren baldintzak bete daizan.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea

JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073

Datea: 01/04/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Agindu horreek beteko ez balira, hitzarmena bertan behera izteko erabagia hartuko dau udalak, alkarteari entzunaldia emon eta gero.

Laugarrena: Udalak emongo dauen dirulaguntzaren zenbatekoa.

Herri irrati digitala martxan ipini daiten finantza arazoak sortu barik, Bermeoko Udalak 45.000 euroko dirulaguntzea emongo deutso Kostarri Kultur Elkarteari, Udalak herri irratirako daukazan lokalen erabilera eskubidea alkarteari lagatzeaz gain. Dirulaguntza hau Plangintza Estrategikoaren 5.1 lerroagaz bat dator, hau da, Bermeo Gertua lerroagaz.

Dirulaguntza modu honetan ordainduko da:

- % 60: 27.000.- euro hitzarmena sinatzerakoan.
- %25: 11.250,00.- euro lehenengo zatiaren gastuen justifikazinoa udalak onartzen dauenean.
- %15: 6.750,00.- euro gastu osoa justifikatzen danean

Aurrekontuaren partida honakoa da: 00800-33411-4810110

Dirulaguntzaren aurrerapena bermatzeko ez da beharrezkoa izango bermea ipintea, taldearen helburua ikusirik ez dalako aurreikusten jasotako laguntza bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea.

Bosgarrena: Dirulaguntza honeek Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen dauan 38/2003 Legearen 28. artikuluaren arabera emon leikez, eta bertan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Era berean, dirulaguntza honeen araubidea, aitatutako 38/2003 Legean jasotakoa izango da.

Seigarrena: Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik barik beharrizanekoak diranak hitzarmen honen bidez martxan ipini gura dan herri irrati digitalaren funtzionamendurako.

Aurreko urteetan diru-laguntzarekin eskuratutako Ikus-entzuteko inbertsio ondasunak matxuratu ez badira, ezin dira erosi, helburu berdinera destinatutako beste batzuk. Hartara, berriak erostekotan, aurrekoen matxura egiaztatu beharko da.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea

JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073

Datea: 01/04/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Dirulaguntza honeek lortu leikezan bestelako sarrera publiko zein pribatuekaz bateragarriak izango dira, beti be gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Halan izanda Kostarri Kultur Elkartea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzen bestelako sarrera eta dirulaguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau hitzarmen honen xede dan helbururako, Bermeoko Udalari horren barri emoten, gain-finantzatutako kopuruak berreskuratzeko prozedureari hasiera emon daien.

Zazpigarrena: Jasotako laguntza funtzionamendu arrunta estaltzeko erabiliko da eta, hirugarrena atalean adierazoten dan moduan, beste sarrera eta laguntzekaz bateragarria bada be, ezingo da inolaz ere gain-finantzaketarik egon.

Gain-finantzaketarik egongo balitz, horren barri emon beharko deutso udalari, eta %100eko finantzaketatik gora egiten dabezan kopuruak itzuli, kopuruak berreskuratzeko prozedurea izapidetu ondoren.

Halan egingo ez balitz, zigorra ipinteko arrazoia izango litzateke, itzuli beharreko kopuru horreeri lege interesak aplikatzearen kalte barik.

Zortzigarrena: Dirulaguntza horretarako erabili dala egiaztatzeko eta Lankidetza hitzarmena bete dauala justifikatzeko, Kostarri Kultur Elkartearen ordezkariak, urteko aurrekontua eta diru-sarreren eta urteeren balantzea aurkeztu beharko dauz, gastu eta sarrerak modu zehatzean jasota.

Agiri honeek gastuak justifikatzen dabezan dokumentuekaz lagunduta joango dira, hala nola, fakturak, langileen soldata-orriak, gizarte segurantzako kotizatze agiriak, etab. Fakturek, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak arautzen dauzan fakturazinoko betebeharrak bete beharko dabez.

Faktura bakoitza dagokion ordainagiriarekin aurkeztu beharko da ez bada berorretan jasotzen ordainduta dagoela, eta aurkeztutako balantzean emandako asentuaren datua eroan beharko dau. Faktura eta dokumentu guztiak balantzean zehaztutako kronologiari jarraiki ordenatuta aurkeztu beharko dira.

Dokumentuak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan leikez.

Era berean, memoria txostena aurkeztu beharko dau, non hitzarmena zelan eta noiz bete dan azaldu beharko dan zehatz. Txosten honeri laguntzeko, entzunezko fitxategiak erantsi ahal izango dira, adibide zehatzak aurkezte aldera.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Memoria horretan, jaso beharko da

- Zabaldutako Bermeoko Udalaren bando, berri, kanpaina, ikastaro eta ekimen kopuruak sailkatuta (hau da, bando, berri, kanpaina ikastaro eta ekimenetan sailkatuta).
- Bermeoko udalak martxan jarritako zein programaren zabalkundean lagundu dauen, eta horren soinu-fitxategiak jasoko dira.
- Zenbat publizitate egin dauen Bermeoko Udalak.
- Zenbat prentsaurrekoetara etorri diren eta horien zabalkundea zelan egin den.
- Udalak hartutako erabakien inguruan zenbat solasaldi egin diren eta udalaren parte-hartzea zelangoa izan den.
- Irratiaren hedapenean udalaren logoa eta parte-hartzea zelan helarazi den.
- Entzuleen eta web gunearen bisita kopurua.
- Emakume eta gizonen berdintasunerako irizpideen inguruko baloraio kualitatiboa eta kuantitatiboa, eta hurrengo urteko helburuak ere aipatuko dira.

Agiri guzti honeek, 2026ko urtarrilaren 10erako aurkeztuko dira, dirulaguntza emondako helburura bideratu dala egiaztatu eta gain-finantziaketa ote dagoan aztertu ahal izateko.

Aurreko laguntzaren bat justifikatzen ez den artean, ez da onartuko berririk, egokiak diran zigor edo itzultze espedienteak izapidetzearen kalte barik.

Emondako diru guztia gastatu ez bada, justifikazinoa eginda, itzuli egin beharko da, baita neurgarriak ez betetzeagatik zehazten diranak ere, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 36.artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Erakunde onuradunak jaso dauen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko dau, borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinarazoko jako, ordainketa egiteko epea eta modua

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

adieraziz. Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90.artikulua betez.

Dokumentazinoaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa zehatz beteten, interesdunak 10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

Agiri honeek ez aurkeztea dirulaguntzea ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da.

Jasotako dirulaguntza itzuli behar izatekotan, interesak itzuli beharko dira (lege interesak gehi %25a).

Bederatzigarrena: Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko dauz:

- Emondako dirulaguntzearen kontrolak egin, dirulaguntzea oinarritzen daben helburua eta egintzak benetan egin dirala egiaztatu ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, dirulaguntzearen oinarriak ez dirala bete ikusten bada, edota ez dirala era egokian justifikau ikusi ezkero, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedurea eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez dirala ikusi ezkero, emondako dirulaguntza berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedurea eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Eta bardin jokatuko dau udalak, emondako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu dirala egiaztatuko balitz.

Hamargarrena: Hitzarmenaren jarraipena.

Hitzarmen honetan araututako lankidetza ebaluatu eta hitzarmenaren jarraipena egiteko erakunde bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da eta honeek izango dira: Nadia Nemeh Shomaly Bermeoko Udaletik eta Josu Urquidi Elortegui Kostarri Kultur Elkartetik.

Batzorde horrek bilera tekniko bat egingo dau azaroan proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hartu beharrekoak erabagiak edota egin beharreko interpretazinoak adostasunez egingo dira eta, adostasunik lortu ezingo balitz, hitzarmena bertan behera izteko arrazoia izango da.

Hamaikagarrena: Arau-hauste legez hartuko dira jokabide honeek:

1.- Bigarrena atalean jasotako betebeharrak ez betetzea.
2.- Seigarren ataletik zortzigarren atalera jasotako betebeharrak ez betetzea.
3.- Jasotako dirulaguntza ez justifikatzea horretarako emondako epean.
4.- Eskuratutako bestelako sarreren barri ez emotea, bardin publikoak zein pribatuak izan.
5.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo atalean jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako dirulaguntza murriztea ekarriko dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatuko dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik dirulaguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

Beste ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, dirulaguntza osorik itzultzea ekarriko dau zigor moduan, eta hurrengo urteetan dirulaguntza barriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko dau.

Zigor horreek ipinteko, legediak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta erabagia hartu orduko interesdunari entzunaldia emoten jakola bermatuko da.

Hamabigarrena: Hitzarmena ez betetzearen bestelako ondorioak.

Hitzarmen honetan jasotakoa nabarmen beteko ez balitz, eta hitzarmenaren exekuzino egokia kolokan ipiniko baleu, hitzarmena bertan behera izteko arrazoia izango da, aurreko atalean zehaztutako zigorrak ipinteko udalaren ahalmenaren kalte barik.

Edozein kasutan, ahal dan heinean hitzarmenaren exekuzinoagaz jarraitzeko ahalegina egingo da.

Hamahirugarrena: Hitzarmen honen iraupena 2026eko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Urte bateko diru laguntzaren kopuruak ez dau ezelako eskubiderik ematen beste urte baterako.

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea
JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073
Datea: 01/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hamalaugarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazino edo interpretazinoan hartzen diran erabagiak bide administratiboari amaiera emongo deutsee eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazinoarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

Hamabosgarrena: Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legea
2. Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dauan 887/2006 Errege Dekretua.
3. Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legea
4. Herri Administrazinoen Prozedura Administratibo Orokorraren 39/2015 Legea
5. Administrazino Publikoen Ondarea arautzen dauan 33/2003 Legea.
6. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDa.
7. .Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
8. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez dan guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

Hamaseigarrena: Hitzarmen hau eta onarpeneko erabakia Dirulaguntzen base nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20.artikulua betez.

Eta holan agertu daiten, honako hau emoten dabenek agiri hau onartzen dabe, eta lau ale sinatu, eragin bakarrerako.

BERMEOKO UDALA
Nadia Nemeh Shomaly

KOSTARRI KULTUR ELKARTEA
Josu Urquidi Elortegui

Gotzon Bareño Duñabeitia
IDAZKARI NAGUSIA

CSV: 07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016BCA300Z0O1I3M4E2F7

Sinadurea eta datea

JOSU URQUIDI ELORTEGUI-KOSTARRI KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA - 14/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2026
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2026 14:09:54

EXPEDIENTE :: 2026IDA_ERA_0073

Datea: 01/04/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia